



LIBURUA

Mendiarekin jolas-solasean



OMNIUM CULTURAL

NIK KANTATU ETA DANTZA EGITEN DU MENDIAK

EGILEA: IRENE SOLÀ

ITZULTZAILEA: JOXAN ELOSEGI

ALBERDANIA, 2020

AMAIA ALVAREZ URIA

Nik kantatu eta dantza egiten du mendiak eleberria iaz kaleratu zen katalanez. Lan honekin Irene Solà, idazle izateaz gain artista plastikoa denak, lau sari irabazi ditu orain arte. Azkena Europar Batasunaren literatura saria izan da eta horri esker Joxan Elosegi itzuli eta Alberdaniak argitaratu du aurten.

Solà elkarrizketa batean esan du ederto pasa zuela liburu hau idazten, jolasa eta esperimentazioa izan dela berarentzat ariketa literario hau. Eta hortik dator liburu honek duen alderik erakargarriena. Ohituta gaude ahots narratzaileen bidez munduak eta pertsonak ikuspegi desberdinetatik ikusten. Baina oraingoan ikuspegiak askoz ugariagoak dira, eleberri korala izateaz gain, ez di-

relako pertsonak narratzen duten bakarrak. Espirituak, animaliak eta natura ere izango direlako kapituluetan barna irakurlea gidatuko dutenak. Bestelako ikuspegiak, bestelako hizkerak, bestelako iruditeriak izango ditugu orriotan.

Mendialdeko bizitza(k) d(ir)a liburu honetako protagonista, Pirinio katalane-ko historia eta mitologia zehazki. Horretarako bertako gertaera historikoak, ipuinak eta kondairak harilkatu ditu idazleak eta eleberria hala osatu. Bertan bizi eta hil diren hainbat belaunalditako pertsonaiak agertzen eta desagertzen zaizkigu. Batzuk menditik herrira edo hirira joan dira, besteek alderantzizko bidea egin dute. Bizimodu tradizionala eta "alternatiboa" dutenak auzokide dira, mendiko izaki mitologiko, bizitza eta heriotzaren

arteko mamu, basoko animalia eta landareekin batera. Mendikatea bera ere pertsonailetako bat da eta bere ahotsa entzungo dugu eleberriaren erdigunean.

Beste begi batzuekin naturari begiratzeko eta naturan kokatzeko saiakera honen harira, burura etorri zaigu Latinoamerikako feminismo komunitarioaren diskurtsoa. Haien hitzetan, gorputza eta lurra bat dira eta bien defentsan dihardute. Liburu honetan lotura hori ikus daiteke, zentzumenak esnatzen dira eta gorputzean aztarnak geratzen dira bertako biztanleak mendian gora edo basoan barna ibiltzen direnean. Aberastasun eta irudimen ariketa honek ordea irakurle aktiboa eskatzen du, hitzei jarraitu eta loturak egingo dizkiena. Prest zaude? ●